



I. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA
Bizkaiko Foru Aldundia

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 2073/2019 FORU AGINDUA, uztailaren 8koa, 2019. urtean Bizkaiko merkataritza-sozietateek, kooperatiba sozietateek, banakako enpresaburuek eta profesionalek Bizkaian antolatzen dituzten izaera parte-hartzaileko kirol jarduerentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 64/2019 Foru Dekretuko Epaimahai kalifikatzaileko kideak izendatzen dituena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 64/2019 Foru Dekretuaren bidez 2019. urtean Bizkaiko merkataritza-sozietateek, kooperatiba sozietateek, banakako enpresaburuek eta profesionalek Bizkaian antolatzen dituzten izaera parte-hartzaileko kirol jarduerentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onetsi ziren (107. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, ekainaren 6koa).

Foru dekretu arautzaile horren 8. oinarrian xedatutakoaren arabera diru-laguntzak norgehiagoka sistema erabiliz, hau da, aurkeztutako eskabideak alderatuko dituen epaimahai kalifikatzaile bat eratuz emango dira; epaimahai horrek, 9. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-ordena ezarriko du, eta foru diru-laguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontu-sailean ezarritako zenbatekoa muga izanik.

Oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 39.i) eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 foru dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 64/2019 Foru Dekretuak araturako diru-laguntzetarako Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzea. Honako hauek osatuko dute epaimahai hori:

- Epaimahaiburu titularra:
 - Miren Arantza Mardaras Izarza andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko burua.
- Ordezko epaimahaiburua:
 - Asier Haza del Cerro jauna, Zerbitzu Orokorren Zerbitzu burua. Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
- Epaimahaikide titularrak:
 - Javier de Maria Garcia jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Kirolaren eta Kirol Azpiegituren Ataleko burua.
 - M.^a Carmen Lozano Delgado andrea, Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarteak (ASFEDEBI) izendatua.



— Ordezko epaimahaikideak:

- Mónica de la Fuente Sánchez andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Ataleko burua.
- Pedro Achiaga Odriozola jauna, Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarteak (AS.FE. DE.BI) izendatua.

— Idazkari titularra:

- Igor Estankona Bilbao jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko funtzionaria, ahotsa izango duena baina botorik ez.

— Idazkari ordezkoa:

- Francisco Javier Santos Garay jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko funtzionaria, ahotsa izango duena baina botorik ez.

Bigarrena: Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Tercero: Agintzea foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapena.— Indarrean jartzea

Honako foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko uztailaren 8an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA